

GEMA INSAUSTI ETA ITZIAR REKALDE-RI ZILARREZKO DOMINA EMATEA

Gasteiz 2004-XI-26

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Euskaltzaindiak, 25 urte lanean arizan diren bere langileei zilarrezko domina emateko ohidura du. Hain zuen ikusten delarik haien zerrenda neurt daiteke denbora berean Euskaltzaindiaren garapena. Alabainan lehenik eskaini zitzaizen Jose Luis Lizundia eta Maria Pilar Lasarte-ri, beraz egoitzako bat eta Donostiako ordezkari orduan sortu zela salatzen du Maria Pilar omendua izan delarik. Gero sendotzen da egoitza, eskainia izan baitzaie domina Juan Jose Zearreta, Rikardo Badiola eta Nere Altuna-ri eta iaz Begoña Amundarain, Resu Orbe eta Lutxi Alberdi-ri. Aurten Gema Insausti eta Itziar Rekalde-ri ematen zaie domina, erran nahi baita duela 25 urte sortu zirela Iruñeko eta Gasteizko ordezkariak. Hegoaldeko lau probintziak hornituak dira, Bizkaia egoitzarekin eta beste hiruak bakoitzak bere ordezkariarekin probintziako hiri nagusian. Gero sortuko da Iparraldekoa Baionan.

Ordezkaritzetako langileek erakusten dute Euskaltzaindiaren aurpegia, herritarrek hartuz eta haien emanez behar duten informazioa, dela herri edo leku izenez, ponte izenez edo deituz edo ere ziurtagirien eskatzera datozenean. Nola, beraz, ez dute merezi Euskaltzaindiaren ezagutza eta omena!

* * *

Gema Insausti: Arbizon sortua eta orain Iruñean bizi da. Sakana eskualdeko hiru lagunekin lotura izan du Euskaltzaindian. Hain zuen duela 26 urte Nafarroako ikas-tolen idazkari Juan Luis Larraza-ren eskutik Euskaltzaindiak antolatutako *Bai Euskarrari* kanpaina hasi zen lanean arduradunekin. Hurrengo urtean Jose Mari Satrustegi, Nafarroako ordezkariak hartu zuen lanean behin betikotz.

Denen zerbitzuko izan zara lan ixila eginez, astean bi aratsaldetan joaiten zinela Urdiaingo apeztxera Satrustegi-ren laguntzera Euskal Testu Zaharren bilduma prestatzen zuelarik eta beste lan asko. Ez dut ahantziko ere 1984eko X. Biltzarrean, Arturo Kanpion-en omenezko *Gramatikarenean* azpiegiturako langile izan zinela eta ere Nafarroan egin diren jardunaldi, ospakizun eta ekitaldi guzietan. Badakit ere lagundu duzula Sakanako hirugarren bat, Aita Ondarra, bakaikuar euskaltzaina, apailatzen zituelarik Aita Iraizoz-en lanekin agertu dituen hiru liburua.

Damu dut bere ezin etorria jakinarazi baitu oraiko ordezkaria Andres Iñigo-k, harekin batean eskainiko bainizun domina hau dioena:

*Gema Insausti
1979-2004
Langintzaren oroigarri.
Euskaltzaindia*

* * *

Itziar Rekalde: Gernikarra dugu sortzez hango klinika batean mundura etorria, baina Bermeo itsas hiriko alaba, nahiz lehortarra izan, hango hizkeran «terrestrie». Imanol Berriatua-ren laguntzaile hasi zen lanean Bilbon, *Bai Euskarari* kanpainaren ondotik.

Gasteizera bizitzera jin zinelarik eta sortu zelarik ordezkaritza Henrike Knörr ordezkariaren agindupean hasi zinen lanean. Henrike Knörr Argentinan dago egun haueetan Euskaltzaindiaren izenean, baina hor daude ezagutu dituzun beste bi ordezkariak, Manu Ruiz Urrestarazu eta Patxi Goenaga euskaltzaina eta Hizkuntza Politikarako sailburu-ordea.

Ordezkaritzetan egiten diren lanak, jadanik aipatu ditudanetan, murgildu da Itziar bere ahal eta dohain guziekin, azpiegituretan sartu kongresu, biltzar eta jardunaldi guzietan beti prest laguntzaren eskaintzeko, bai Biltzarretako prentsa bulegoetan Martin Ugalde zena, Xabier Aranburu eta Joseba Intxausti-rekin. Zenbait urtez langileen izenean Batzorde Parekidean bete du bere eginbidea zintzoki, ez ahantziz sekulan lagunen izenean mintzo zela.

Gema Insausti-ri bezala Euskaltzaindiaren izenean esker-onaren adierazpen gisa zilarrezko domina ematen dizut, hauxe dioena:

*Itziar Rekalde
1979-2004
Langintzaren oroigarri.
Euskaltzaindia*

Bai, zuri eta Gema-ri zorionak bihotz-bihotzetik.